


Euskal AE-ko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2003ko otsailean

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko otsaila, 2002ko otsailarekin alderatuta) %2,9koa izan da.

2003ko otsailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,1 igo zen eta otsailerako urte arteko tasa %2,9ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera. Lehengaien kostuaren hazkundeak (%0,2) markatu du otsaileko indize orokorra, beste osagaia, lan-eskuaren kostua ez baita aldatu aldi horretan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza otsaileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldia (2003ko otsaila, 2002ko otsailarekin alderatuta), lan-eskuaren kostuak %4,0ko igoera izan du; lehengaien kostuek, berriz, %2,0koa.

2003ko otsaileko guztizko kostuen hazkundea era desberdinean banatzen da bi azpisektore nagusien artean: obra zibila azpisektoreko kostuak (%0,3) igo egin dira eta Eraikinak azpisektorekoak mantendu (%0,0). Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran ere, gehiago igo dira Obra zibilekoak (%3,9) Eraikinekoak (%2,5) baino.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko otsailean, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: petroliotik eratorriak (%6,1), pinturak eta bernizak (%0,9) eta produktu asfaltikoak (%0,6). Eta bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitsiera honako lehengaiak izan dituzte: leherkariak eta gasak (%-2,9), kristala (%-1,0) eta zementu artifiziala (%-0,1) lehengaiak, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2003KO OTSAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	122,0	0,1	2,9	2,4
ERAIKINAK	122,1	0,0	2,5	2,2
OBRA ZIBILA	121,8	0,3	3,9	2,9
LEHENGAIEN KOSTUA	115,0	0,2	2,0	1,3
ERAIKINAK	115,0	0,1	1,4	1,0
OBRA ZIBILA	114,8	0,6	3,9	2,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	133,5	0,0	4,0	4,0

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es